

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren balio proposamena bezeroen nahi eta beharretara moldatzen den arropa diseinatzea da, horretarako, gure enpresa ondo antolatzea ezinbestekoa da.

Alde batetik, funtsezkoa da gure diseinatzaileak bezeroekin harremanetan jarriko dituen web gune bat sortu eta hura kudeatuko duen adituak kontratatzea. Garrantzi handikoa da web orria deigarri eta erabiltzeko erraza izatea, edonork erabil ahal izateko eta haien gustuko arropa eskuratu ahal izateko.

Behin bezeroen eskaerak lortu ditugun, arropak egitea da hurrengo urratsa. Horretarako, diseinatzaile talde bat behar dugu eta diseinunak fabrikatuko dituen beste jostun talde bat. Baina ezer fabrikatzen hasi baino lehenago, diseinunen argazkiak atera eta argitarautko dituen adituak ere beharrezkoak dira, bezeroei arropak gustatuko zaien edo ez jakiteko. Gero, arropak amaituta daudenean, bezeroetara edota dendetara bidaltzeaz arduratuko diren beste langile talde bat antolatu behar da.

Noski, enpresa hazi ahala agertzen diren arazoak konpontzeko konponbideak bilatzen dituzten adituak kontatzea ere funtsezko da.

Horrez gain, materialak erosiko dituen eta lantegira eramango dituen garraioa kudeatu behar da. Baita dendan lan egingo duten gainontzeko langileak antolatzea, hala nola, diseinunak kudeatuko dituztenak, materialak ordenatuko dituztenak, makinen mantentze-lanak egingo dituztenak, lantegia eta tresnak garbituko dituztenak...